

1979-III-30

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1979.eko Martxoaren 30ean, arratsaldeko lauetan bildu dira: L. Villasante buru, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Laffitte, E. Larre, J.M. Satrustegi eta A. Zabala euskaltzain jaunak; J.L. Alvarez Enparantza, I. Berriatua, P. Charritton, J.M. Etxaburu, X. Kintana, J.A. Letamendia, J.L. Lizundia, L.M. Mugika, R. de Rijk, A. Zatarain eta J.J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak; J.M. Satrustegi idazkari dela.

J.L. Davant, X. Diaharce, J. Haritschelhar eta P. Larzabalek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Otsaileko batzar agiria onartu da.

a) *GOIZEKO BILKUREN BERRI:*

Batzordeen birrantolaketa. Honako batzorde hauek berriztatu edo jarri dira: *Oinarrizko euskara*: I. Berriatua buru, J.J. Zearreta idazkari, J.L. Alvarez Enparantza, X. Kintana eta J.L. Goikoetxea;

*Alfabetatze-Euskalduntze*: hauek bi azpibatzerdetan banaturik:

*Harremanetakoa*: J. San Martin buru eta Gipuzkoako harremanetakoa, E. Knörr Arabarako, J.M. Satrustegi Nafarroarako, J.L. Lizundia Bizkairako eta P. Charritton Iparralderako; *Gidaritza teknikoa*: Irakasle-go batzordekoak eta prezeski: X. Mendiguren P. Uribarren eta J.J. Zearreta.

*Herri Administralgo hiztegiñoa*: J. Haritschelhar buru, J.L. Lizundia idazkari F. Mendizabal X. Kintana eta J.A. Arana Martija; kontsultari gisa: J.M. Lojendio, M. Itzaina, J. Oleaga, P. Zabaleta, E. Etxezarreta, P. Iztueña, A. Muniategi eta M. Rika.

*Elebitasunaz harremanak*: J.M. Satrustegi buru, J.L. Lizundia idazkari, E. Knörr, J. San Martin, J.A. Letamendia, X. Mendiguren, P. Uribarren eta K. Larunbe.

Aurrerago berriztatu zen bertsolari batzordean J.M. Iriondo idazkari izendatu da.

Jaso diren oharra kontuan izanik, "Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak", Bergarako Biltzarraren adierazpena onartu da.

J.M. Satrustegi jaunak magnetofoi bilketaren berri eman du. Hamai-ka zinta hartu dira, Altsasu, Arrokiaga, Elantxobe, Gernikako Erretereria, Lekarotz, Ligi-Atherei eta Maulen jasoak. Hauetatik zazpi ontzat eman dira.

Irakaslego batzordea bildu da, beste alde, programa berriak zehaz-ten jarraitzeko. Helburuaz jabetu eta iritziak entzun ondoren, zenbait xehetasun hobeki mugatzeko utzi dira gaurkotz. D eta B mailako azterke-  
tak, Donostian Maitzaren 19an, eta Durangon Maiatzaren 26ean izango direla jakinerazi dute.

Euskaltzain buruak, Holandako urgazle Rudolf de Rijk jaunari ongie-  
torria eman dio.

b) *TXOSTENAK*:

J.L. Lizundia jaunak "Herri administralgo hiztegiño baten eskabide eta premiaz" bere txostena irakurri du. Euskararen normalizapenak eskatzen du, Udaletxe, Haurtegi, Legedi eta beste eginkizun ofizialetan erabiltzen diren arazo eta burubide mugatuak, hitz zehatzekin adierazi beharra.

Gramatika gaietako izendegiarekin hutsune bera dugula aipatu du gero X. Kintana jaunak. Lan biak behar beharrezkoak dira.

J.M. Etxaburu jaunak "Kultura hitzen laburpena" izeneko idazkia irakurri du, aurre hitzari a kentzea gaizki omen dagoela esanez. Bestelako iritziak ere agertu dira.

Elhuyar-ko M. Zalbide jaunak, Matematika, Fisika, Kimika, Biologia, Anatomia, Zoologia eta Teknologia gaiei buruz egin duten hitzen maizta-  
sunaren bilduma mardula aurkeztu du.

Azkenekotz, "Euskera" 1978eko bigarren alea banatu da. Bergarako Biltzarran erabilitako-gai guztien bilduma da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*

Luis Villasante

*Idazkaria*

Jose Maria Satrustegi